


BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure produktua birziklatutako poltsez eginiko beste poltsa bat izango da, zeina behin baino gehiagotan erabili ahal izango da. Nahiz eta itxuraz ez duen desberdintasun askorik izango poltsa normalen aldean, prozesua ezberdina izango da: erabilitako 2 poltsa hartuko ditugu, eta horiek plastiko-zerrendatan moztuko ditugu. Horrela, tira asko geratuko direnez, ondoren denak lotzen joango gara, poltsa berri bat lortuz. Guztiz berrerabilgarria izango da, eta, gure ustez, berritzailea, poltsak beste metodo baten bidez lortzen baitira.

Gure enpresaren helburua plastiko produkzioa murrizteko pausu bat ematea da, planetako hondakin tasa txikiagotzea lortu ahal izateko. Horregatik, jada erabilgarri ez diren supermerkatuetako poltsak birziklatuz, beste poltsa batzuk egitea erabaki dugu.

Poltsa hauetako bakoitza aurretik erabilitako beste lau poltsaz egongo da osatua eta eskuz egindako moldaketa batzuekin sortuko ditugu, gurutzatuaren teknika erabiliz. Honela, erresistentzia eta iraunkortasuna izango dute.



Badakigu antzeko poltsak jadanik supermerkatuetan salgai daudela, baina prozesu kimiko konplexu eta kutsakorrek erabiltzen dira lehengaietatik poltsetako plastikoa eskuratzeko eta ondoren poltsak muntatzeko. Aitzitik, gure produktua aitzindari izan daiteke gaur egungo merkatuan.

Diseinu aldetik, poltsa bakoitzak berezko “pertsonalitatea” izango du, supermerkatuetako poltsek hamaika diseinu baitituzte eta horien artean milaka konbinaketa egin baitaitezke. Hau da, gure enpresan sortutako poltsa bakoitza bakarra eta eskusiboa izango da munduan.

Horregatik, nahiz eta poltsa hauek lehenagotik merkatuan dauden, guk eraldatutakoan berritzaileak izango dira, inork ez baitu lehenago horrelako poltsarik diseinatu. Bezeroarengana erraz iritsi nahi dugu, eta gure produktua ezagutu dezaten ere bai, askoren pentsamendua alda baitezake.



KAMQ



BIODEGRADABLE

100%